

## ALTZOKO UDALA

*Iragarkia*

Altzoko Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 30ean egindako bileran, «Txakurrak erabili eta zaintzeko Udal Ordenantza» onartu zuen.

Erabaki horren berri eman eta 30 egunez jendaurrean egon ondoren, ohar nahiz erreklamazioak aurkeztu ez direnez, behinbetiko onarturik gelditu da. Hona hemen araudiaren testua:

*Txakurrak Erabili eta Zaintzeko Udal Ordenantza.*

## I. IDAZPURUA

## XEDEA ETA EZARPEN EREMUA

*1. artikulua.*

Txakurrak, erabiltzeko, eta zaintzeko arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

Bertan, arau haustek eta santzioak sailkatzen dira eta santzioak gauzatzeko jardunbidea ezartzen da.

*2. artikulua.*

Ordenantza honek Altzoko udalerri osoa arautzen du.

## II. IDAZPURUA

## TXAKURRAK

*3. artikulua.*

Ezin da txakurrik sartu jolastoki, lorategi, kirol instalakuntza eta establezimendu publikoetan.

Ezta ere ezin da txakurrik sartu besteen lur sailetan eta oraindik gutxiago bertan ganadu, ardi, oilo edo bestelako etxabererik aurkitzen bada.

*4. artikulua.*

Udal zerbitzu teknikoek txakurrek sortutako eragozpenen berri emango diote Udalarari, beren kasa, zein norbaitek salaketa bat jarrita.

*5. artikulua.*

Txakurra baztertera ezingo da utzi. Txakurra nahi ez duenak jabe bat bilatu beharko dio, edo bestela animaliak babes-teko elkarre bati eman.

*6. artikulua.*

1. Itsu bati laguntzen dion txakurra jendarentzako toki, ostatu, denda, lokal eta garraio bideetan sartu ahal izango da.

2. Agintaritzaren mandatari batek edo lokalaren arduradunak eskatzen badiu, itsuak txakurra gida-txakurra dela eta osasun baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

3. Itsu txakurra gaixo, erasokor, zikin edo arriskutsua delako susmoa badago, ezin izango da lehenengo zerbaki adierazitako lekuetan sartu.

## AYUNTAMIENTO DE ALTZO

*Anuncio*

El Pleno de Altzo, en sesión celebrada con fecha 30 de abril de 2002, aprobó la «Ordenanza Municipal sobre manejo y cuidado de Perros».

Tras la publicación y exposición de dicha resolución durante 30 días, en vista de que no se han presentado escritos ni reclamaciones, queda aprobada de forma definitiva. Este es el texto de la normativa:

*Ordenanza sobre manejo y cuidado de perros.*

## CAPITULO I

## OBJETO Y AMBITO DE APLICACION

*Artículo 1.º*

El objetivo de esta ordenanza es establecer las normas para el manejo y cuidado de perros.

En la misma, se clasifican las infracciones y sanciones y se establece el procedimiento para llevar a cabo dichas sanciones.

*Artículo 2.º*

Esta Ordenanza rige en todo el término municipal de Altzo.

## CAPITULO II

## PERROS

*Artículo 3.º*

Queda prohibido el acceso de perros en parques, jardines, instalaciones deportivas y establecimientos públicos.

Queda igualmente prohibido el acceso de perros en terrenos ajenos, especialmente cuando en ellos haya ovejas, gallinas o cualquier otro tipo de animal doméstico.

*Artículo 4.º*

Los servicios técnicos municipales informarán al Ayuntamiento de las molestias causadas por perros, y lo harán tanto por iniciativa propia como a resultas de denuncias interpuestas por terceros.

*Artículo 5.º*

El perro no podrá ser abandonado. Quien no desee el perro deberá buscarle otro dueño o, si no, deberá llevarlo a una sociedad protectora de animales.

*Artículo 6.º*

1. El perro que acompañe a una persona ciega podrá entrar en lugares públicos, tiendas, hoteles, locales y medios de transporte.

2. A requerimiento de un agente de la autoridad o de un encargado de establecimiento, la persona ciega deberá acreditar que el perro es realmente un perro-guía y que cumple con los requisitos higiénicos.

3. Si se advierte que el perro de una persona ciega está enfermo, es agresivo, está sucio o resulta peligroso, no podrá entrar en los lugares indicados en el primer punto.

*7. artikulua.*

Hozka egiteagatik, txakurraren jabeak derrigorrezko bete-beharra izango du, txakurra albaiariarengana eramatea eta gaitoxotasunik ez duela egiaztatzea. Aldi berean, txakurraren jabeak, hozka jasan duena medikuarengana eramane beharko du sortutako kalteak hala eskatzen badu.

*8. artikulua.*

1. Herri bideetan eta jendearentzako gainontzeko ibiltokietan, txakurrek soka eta lepoko bat eramane beharko dute. Hau bete beharrik ez dute izango artzain txakurrek bere lanean ari direnean.

Bere izaera eta itxuraren arabera arriskutsuak gerta litezkeen txakurrak muturrekoarekin ibiliko dira. Modu berean muturrekoa eramane beharko dute inoiz inori hozka egin dioten txakurrek.

2. Txakurra daramana gai izan behar da, txakurraren indar eta pisuaren arabera, edozein gertakizun dela eta txakurrak har dezaken jarrerari erantzuteko eta eusteko.

*9. artikulua.*

Txakurren hondakinak isuri ezinezkoak dira leku publikoetan. Txakurren jabearen egitekoa da hondakinak jaso eta modu egokienean desagertaraztea.

*10. artikulua.*

Aurreko artikuluan jasotakoa bete ezean, animalia daramanako edo, bere orde, jabeak izango du erantzukizuna.

## III. IDAZPURUA

## ZIGOR ARAUAK

## 1. ATALBURUA. ARAU HAUSTEAK

*11. artikulua.*

Ordenantza honen ondorioetarako, arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira, Eusko Legebiltzarrak urriaren 29ko 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat, haustearen larritasuna neurtzeko hauek izango dira aintzat hartu beharrekoak: Pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, axolagabekeria, kaltearen larria eta behin baino gehiagotan kalte egin izana.

*12. artikulua.*

Hauek dira arau hauste arinak.

a) 5 eta 9. artikuluetan jasotakoak.

*13. artikulua.*

Hona hemen arau hauste larriak:

3, 7 eta 8. artikuluan jasotakoa.

*14. artikulua.*

Hona hemen arau hauste oso larriak:

3, 5, 7, 8 eta 9 artikulua bigarren aldiz haustea.

Ordenantza honetan arautzen diren gaitan egindako hutsek honako sartzio hauek izango dituzte:

## 2. ATALBURUA. SANTZIOAK

*15. artikulua.*

1. Eusko Legebiltzarrak urriaren 29an emandako 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat etorritik, ordenantza honetan egindako hutsengatik 30,05 €tik 15.025,30 € arteko isuna ordaindu beharko da:

*Artículo 7.º*

En caso de mordedura, el dueño del perro está obligado a llevar el perro al veterinario y comprobar así que no tiene enfermedad alguna. Del mismo modo, el dueño del perro deberá llevar al médico a la persona que ha sufrido el ataque, cuando así lo requieran los daños causados por el mismo.

*Artículo 8.º*

1. En caminos y vías públicas y demás lugares de paseo, los perros deberán ir sujetos con correa y llevar collar. Estarán excluidos de esta norma los perros de pastor cuando se hallan realizando su tarea.

Atendiendo al carácter y aspecto, aquellos perros que puedan resultar peligrosos deberán llevar bozal. Así mismo, deberán también llevar bozal aquellos perros que alguna vez hayan mordido a alguien.

2. Quien lleve al perro deberá ser capaz, en atención a la fuerza y tamaño del animal, de responder y refrenar la actitud que el perro pueda adoptar ante cualquier eventualidad.

*Artículo 9.º*

Las heces de los perros no pueden ser depositadas en lugares públicos. Es tarea del dueño del perro recoger las heces y hacerlas desaparecer de forma conveniente.

*Artículo 10.º*

En caso de incumplimiento de lo indicado en el anterior artículo, la responsabilidad será de quien lleve en ese momento el perro, o en su caso, del dueño del mismo.

## CAPITULO III

## NORMAS SANCIONADORAS

## APARTADO 1.º INFRACCIONES

*Artículo 11.º*

A efectos de la presente Ordenanza, las infracciones podrán ser leves, graves o muy graves. Siguiendo la clasificación de la Ley 6/1993 de 29 de octubre, los parámetros para medir la gravedad de la infracción serán los siguientes: Peligro para la salud y seguridad de las personas, negligencia, gravedad del daño y reincidencia en el daño producido.

*Artículo 12.º*

Son infracciones leves:

a) Las recogidas en los artículos 5.º y 9.º

*Artículo 13.º*

Son infracciones graves:

Las recogidas en los artículos 3.º, 7.º y 8.º

*Artículo 14.º*

Son infracciones muy graves:

Infringir por segunda vez los artículos 3.º, 5.º, 7.º, 8.º y 9.º

Las faltas cometidas con relación a los temas regulados en esta Ordenanza tendrán las siguientes sanciones:

## APARTADO 2.º SANCIONES

*Artículo 15.º*

1. Conforme a la clasificación de la Ley 6/1993 que con fecha 29 de octubre emitió el Parlamento Vasco, por las faltas recogidas en esta ordenanza deberá abonarse una cantidad que oscilará entre 30,5 euros y 15.025,30 euros.

- a) Arau hauste arinak, 30,05 €tik 300,51 € arte.
- b) Arau hauste larriak, 300,51 €tik 1.502,53 € arte.
- c) Oso arau hauste larriak, 1.502,53 €tik 15.025,30 € arte.

2. Ordenantza honetako sartzioen zenbatekoak urtero aldatuko dira, berez eta besterik gabe, kontsumorako prezioen indizearen arabera; aurreko urteko sartzioen zenbatekoak oinarri hartuta.

### 3. ATALBURUA. SANTZIO JARDUNBIDEA

#### 16. artikulua.

Santzio jardunbideari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak xedatutakoa beteko du Udalak.

#### Xedapen Iragankorra.

1. Udal Sanitateak ordenantza honetan xedatutakoari buruzko aholkua eskatu ahal izango die profesionalen erakundeek zein animaliak babesteko elkarteek.

2. Ordenantza honetan jasotzen ez diren kasuetarako, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak, Animaliak Babesteari buruzkoak, xedatutakoari jarraituko zaio.

#### Amaierako Xedapena.

Ordenantza honek Udaltzak behin-betiko onespena emateko hartutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertu eta biharamunean hartuko du indarra.

#### ORDENANTZAREN OINARRI DIREN LEGE-ARAUAK

a) Apirilaren 24ko 1.119/75 Dekretua, zoologi gune, zaldiketa egiteko establezimendu eta animaliak sustatu eta zaintzeko zentzuen baimenei eta erregistroei buruzkoa. 128. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1975-05-29koa.

b) 1976ko ekainaren 14ko Agindua, gizakiarekin bizi diren txakur eta katuentzako osasun eta garbitasun arauak ematen dituenak. 168. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1976-07-14koa.

c) Nekazaritza Ministerioak 1980-07-28an emandako Agindua, zoologi gunea, zaldiketa egiteko establezimendu eta animaliak sustatu eta zaintzeko zentzuen baimenei eta erregistroei buruzkoa. 219. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1980-09-11koa.

d) Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Ihardunbidearen Oinarriak arautzen dituenak.»

Altzo, 2002ko urriaren 24a.—Xabier Galarraga Zabala, Alkatea.

(167)

(11582)

- a) Infracciones leves, entre 30,5 euros y 300,51 euros.
- b) Infracciones graves, entre 300,51 euros y 1.502,53 euros.
- c) Infracciones muy graves, entre 1.502,53 euros y 15.025,30 euros.

2. Las cantidades de las sanciones de la presente Ordenanza cambiarán todos los años, sin requisito alguno, según el índice de precios al consumo, tomando como base las cantidades de las sanciones del año anterior.

### APARTADO 3.º PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

#### Artículo 16.º

Por lo que respecta al procedimiento sancionador, el Ayuntamiento cumplirá lo estipulado por la Ley 6/1993 que con fecha 29 de octubre de 1993 emitió el Parlamento Vasco.

#### Disposición Transitoria.

1. La Sanidad Municipal podrá recabar asesoramiento acerca de lo estipulado en esta ordenanza tanto a las organizaciones de profesionales como a las sociedades protectoras de animales.

2. Para los casos que no se hallan recogidos en esta Ordenanza, se seguirá lo estipulado en la Ley 6/1993 de fecha 29 de octubre de 1993 emitida por el Parlamento Vasco sobre Protección de Animales.

#### Disposición Final.

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la resolución adoptada por la Corporación para su aprobación definitiva.

#### FUNDAMENTOS LEGALES DE LA ORDENANZA

a) Decreto 1.119/75, de 24 de abril, acerca del permiso y registro de centros de promoción y atención de animales, establecimientos de equitación y centros zoológicos. *Boletín Oficial del Estado* n.º 128, de fecha 29-05-1975.

b) Orden del 14 de junio de 1976, que dicta las normas de salud e higiene relativas a los perros y gatos que conviven con personas. *Boletín Oficial del Estado* n.º 168, de fecha 14-07-1976.

c) Orden dictada por el Ministerio de Agricultura con fecha 28-07-1980, acerca del permiso y registro de centros de promoción y atención de animales, establecimientos de equitación y centros zoológicos. *Boletín Oficial del Estado* n.º 219, de fecha 11-09-1980.

d) Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Altzo, a 24 de octubre de 2002.—El Alcalde, Xabier Galarraga Zabala.

(167)

(11581)